

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI), 2009KO MARTXOA

2009ko martxoan % 13 gutxitu da sartutako bidaiari kopurua

2008ko martxoarekin alderatuta, gaua igaro dutenen kopurua % 14 gutxitu da

EUSTATen datuen arabera, 2009ko martxoan 143.765 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal Autonomia Erkidegoko hotel-establezimenduetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino ia 21.000 gutxiagok; horrenbestez, % 13ko gutxitzea eman da. Arabara heldutako bidaiarien kopurua % 16 gutxitu da, Gipuzkoara heldutakoen kopurua % 14 eta Bizkaia heldutakoena % 11.

Dena den, 2008ko Aste Santua martxoan izan zen eta 2009koa apirilean izan da. Beraz, bi gertaera horiek kontu handiz alderatu behar dira, turismoaren ikuspegitik 2008ko martxoa eta 2009koa ezin baitira guztiz alderatu.

Estatutik etorritako bidaiari kopuruak % 8 egin du behera, eta atzeritik etorritakoen kopuruak % 24. Estatutik etorritako bidaiarien kopurua hiru lurraldeetan gutxitu da. Araban eta Gipuzkoan % 12 egin du behera aipatutako bidaiarien kopuruak, eta Bizkaian % 4. Atzeritar kopurua ere gutxitu da hiru lurralde historikoetan: Araban % 31, Bizkaian % 25 eta Gipuzkoan % 19.

Estatutik etorritako bidaiarien kasuan, Errioxatik, Madrildik, Nafarroatik eta Ceuta eta Melillatik etorritakoen kopurua gehitu egin da. Katalunia, Galizia eta Valentziako Erkidegotik etorritakoen kopuruak, aldiz, ehunekotan beherakada handiagoa izan du. Atzeritarren kasuan, bidaiari gehiago etorri da Finlandiatik eta Holandatik; Frantzia, Italia, Portugal, Erresuma Batu eta Alemaniatik, aldiz, bidaiari gutxiago etorri da.

2009ko martxoan 263.829 gau igaro dituzte bidaiariek; hau da, aurreko urteko martxoarekin alderatuta gaua igaro dutenen kopurua % 14 gutxitu da, guztira ia 44.000 gau gutxiago igaro baitituzte. Igarotako gauek urte batetik bestera bilakaera negatiboa izan dute hiru lurraldeetan: Gipuzkoan % 19 gutxitu da igarotako gau kopurua, Araban % 16 eta Bizkaian % 10.

Batez besteko egonaldiaren iraupena gutxitu egin da Euskal Autonomia Erkidego osoan: aurreko urteko martxoan batez besteko hori 1,87 egunekoa izan zen eta aurtengoan 1,84 egunekoa. Beherakada hori Gipuzkoan bakarrik eman da (-% 6); Araban eta Bizkaian pixka bat egin du gora (% 1 bi lurraldeetan).

Plazen okupazio mailak % 20 egin du behera; aurreko urteko martxoan % 43,50ekoa izan zen eta aurtengo martxoan % 34,97koa. Beherakada horrek hiru lurraldeetan izan du eragina: Araban % 27 egin du behera, % 30,82an geratuz; Gipuzkoan % 22 egin du behera, % 33,51n geratuz; eta Bizkaian % 15 egin du behera, % 37,52an geratuz. Hain zuzen, azken lurralde honek izan du okupaziorik handiena.

Nekazaritza-turismoko establezimenduak: Euskal AEra bidaiari gutxiago etorri da (-% 12) eta gau gutxiago igaro dute (-% 29)

Joan den martxoan 8.535 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-turismoko establezimenduetan, aurreko urteko hilabete berean baino % 12 gutxiagok. Lurraldeka, Arabako establezimendu hauetan bidaiari kopurua gehitu egin da (% 17) baina Bizkaian (% 31) eta Gipuzkoan (% 9) jaitsi egin da. Estatuko bisitarien kopurua % 11 gutxitu da Euskal Autonomia Erkidegoan: Bizkaian % 28 gutxitu da kopuru hori eta Gipuzkoan % 10; baina Araban % 19 gehitu da. Euskal Autonomia Erkidego osoan izan den atzerritar kopurua % 29 gutxitu da; hiru lurraldeetan gutxitu da kopurua: Bizkaian nabarmen gutxitu da horien kopurua (-% 54) eta Araban eta Gipuzkoan gutxitzea neurrizkoagoa izan da (-% 8 eta -% 2, hurrenez hurren).

Martxoan, guztira, 20.592 gau igaro dituzte bidaiariak Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-turismoko establezimenduetan. Beraz, aurreko urteko hil beraren aldean % 29 gutxitu da gau kopurua. Urte arteko hazkunde tasak negatiboak izan dira hiru lurraldeetan: Bizkaian % 46 gutxitu da, Gipuzkoan % 25 eta Araban % 13.

Bidaiari bakoitzak Euskal AEn igarotako batez besteko aldia gutxitu egin da, 2008ko martxoaren aldean: aurreko urtean 3,00 egun igaro zituzten batez beste eta aurten, martxoan, 2,41 egun. Bilakaera negatibo hau hiru lurraldeetan eman da. Araban 2,40 egun igaro dituzte batez beste, % 26 gutxiago; Bizkaian 2,30 egun, % 21 gutxiago eta Gipuzkoan 2,48 egun, % 16 gutxiago (beherakadarik txikiena lurralde honetan eman da).

Plazen okupazio mailak % 36 egin du behera: % 28,47tik % 18,32ra igaro da. Beherakada hori hiru lurraldeetan eman da: Bizkaian % 13,47ko okupazioa besterik ez da izan (-% 50), Gipuzkoan % 20,88koa (-% 30) eta Araban pixka bat beheragokoa, % 20,55ekoa (-% 25).

1. taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	03 2009	%	03 2008	%	Δ %	03 2009	%	03 2008	%	Δ %	03 2009	%	03 2008	%	Δ %	03 2009	%	03 2008	%	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	263.829	100	307.637	100	-14	36.266	100	43.040	100	-16	132.828	100	147.634	100	-10	94.735	100	116.963	100	-19
Estatukoak	189.732	72	224.460	73	-15	29.181	80	34.939	81	-16	90.145	68	102.331	69	-12	70.406	74	87.190	75	-19
Atzerrikoak	74.097	28	83.177	27	-11	7.085	20	8.101	19	-13	42.683	32	45.303	31	-6	24.329	26	29.773	25	-18
Hiriburua	170.414	65	182.561	59	-7	27.196	75	32.302	75	-16	91.170	69	91.160	62	0	52.048	55	59.099	51	-12
Litoral	24.888	9	35.025	11	-29	-	-	-	-	-	8.617	6	12.611	9	-32	16.271	17	22.414	19	-27
Barnealdea	68.527	26	90.051	29	-24	9.070	25	10.738	25	-16	33.041	25	43.863	30	-25	26.416	28	35.450	30	-25
BIDAIARIEN SARRERAK	143.765	100	164.428	100	-13	20.514	100	24.483	100	-16	70.753	100	79.055	100	-11	52.498	100	60.890	100	-14
Estatukoak	109.760	76	119.869	73	-8	17.056	83	19.439	79	-12	53.107	75	55.397	70	-4	39.597	75	45.033	74	-12
Atzerrikoak	34.005	24	44.559	27	-24	3.458	17	5.044	21	-31	17.646	25	23.658	30	-25	12.901	25	15.857	26	-19
Hiriburua	92.406	64	97.803	59	-6	15.575	76	17.599	72	-12	46.274	65	46.928	59	-1	30.557	58	33.276	55	-8
Litoral	13.813	10	15.894	10	-13	-	-	-	-	-	5.163	7	6.191	8	-17	8.650	16	9.703	16	-11
Barnealdea	37.546	26	50.731	31	-26	4.939	24	6.884	28	-28	19.316	27	25.936	33	-26	13.291	25	17.911	29	-26
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,84		1,87		-2	1,77		1,76		1	1,88		1,87		1	1,80		1,92		-6
BETETZE-MAILA PLAZAKA	34,97		43,50		-20	30,82		42,00		-27	37,52		44,34		-15	33,51		43,04		-22
Hiriburua	40,74		47,26		-14	34,48		46,73		-26	43,97		47,82		-8	39,39		46,73		-16
Litoral	28,19		40,55		-30	-		-		-	24,47		37,42		-35	30,66		42,56		-28
Barnealdea	27,65		38,39		-28	23,37		32,19		-27	29,64		40,38		-27	27,09		38,28		-29
BETETZE-MAILA GELAKA	45,69		53,24		-14	41,02		51,74		-21	50,91		55,12		-8	40,85		51,40		-21
Hiriburua	54,15		57,47		-6	47,05		59,06		-20	60,26		57,70		4	48,39		56,13		-14
Litoral	34,02		46,64		-27	-		-		-	30,75		48,11		-36	36,13		45,73		-21
Barnealdea	35,35		48,32		-27	28,25		33,54		-16	39,27		52,42		-25	33,47		48,19		-31
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	20.592	100	29.123	100	-29	4.562	100	5.257	100	-13	5.104	100	9.383	100	-46	10.926	100	14.483	100	-25
Estatukoak	18.532	90	26.202	90	-29	3.982	87	4.867	93	-18	4.568	89	8.070	86	-43	9.982	91	13.265	92	-25
Atzerrikoak	2.060	10	2.921	10	-29	580	13	390	7	49	536	11	1.313	14	-59	944	9	1.218	8	-22
BIDAIARIEN SARRERAK	8.535	100	9.713	100	-12	1.904	100	1.628	100	17	2.217	100	3.211	100	-31	4.414	100	4.874	100	-9
Estatukoak	8.015	94	8.982	92	-11	1.802	95	1.517	93	19	2.047	92	2.845	89	-28	4.166	94	4.620	95	-10
Atzerrikoak	520	6	731	8	-29	102	5	111	7	-8	170	8	366	11	-54	248	6	254	5	-2
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,41		3,00		-20	2,40		3,23		-26	2,30		2,92		-21	2,48		2,97		-16
BETETZE-MAILA PLAZAKA	18,32		28,47		-36	20,55		27,40		-25	13,47		27,19		-50	20,88		29,80		-30
BETETZE-MAILA GELAKA	21,42		31,00		-31	23,70		29,26		-19	16,27		31,30		-48	24,29		31,49		-23

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

 Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

 Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp